

Irungo Udalarri eta herri osoari

Emakumeak gizarte, politika, kultura eta lan bizitzako esparru guztietan poliki-poliki baina etenik gabe sartzeko beharra eztabaida ezina den une batean sortzen da hala nahi duten Irungo emakumeak Alardean parte hartzeko eskabidea. Mundu guztiko emakumeak ahaleginak egiten ari dira gizonetik desberdintasun historikoak gero eta txikiagoak izan daitezen lortzeko, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean oinarrituta borrokan ari dira XXI. mendean ahalik eta modu duinenean sartzeko eskubideak lortu ahal izateko.

Eskabide zehatz hau defendatzeko, -emakumeak Irungo Alardean desfilatu ahal izatea-, Bidasoaldeko Emakumeak taldearen iritziz bi interes begiratu behar ditugu:

Alde batetik, Irungo emakumeek duten eskubidea erabiltzekoa, hauxe da, bere herriko jai handienetan ez baztertuak izatekoa.

Bestetik, irundar kopuru handi baten nahia Alardeak nortasuna eta ezaugarri duen zentzu historikoa galdu ez ditzan. Beldurrak eta mesfidantzak daude aldaketa hori sartzeko, eta tradizioarena da emakumeek parterik ez hartzeko ezezko horretan behin eta berriro errepikatzen den arrazoa. *Beti horrela izan da. Tradizioa da emakumeak kantinera gisa bakarrik ateratzea. Tradizioa ezin da aldatu.*

Baina gizarteek eboluzionatu egiten dute eta haiekin batean ohiturek ere. Tradizioa ez da erlikia bat, zerbait bizia baizik, ez du zertan errepikapen hutsean gelditu behar, hain zuzen ere eboluzionatzen duelako mantentzen baita. Beren kulturaren sortzaileak diren pertsonak berek erabakitzen dute tradizio batek biziraun behar duen ala hil behar duen.

Kasu honetan emakume irundarren nahia da, parte hartu, beren herriko jaia barrutik bizi, iragana begiratu, arbasoekiko loturei eutsi, sustraiak babestu eta gure herriaren nortasun ezaugarriak defendatu nahi baitituzte, aukera emango duena gure tradizioari eusteko eta gure San Martzial jaia freskura osoz egiteko, hogeita batgarren mendean hamazazpigarrenean bezalaxe.

Begien bistakoa bada ere, errepikatu egin nahi dut: Alardean parte hartu nahi duten Irungo emakumeek beren herriko jaia bihotz-bihotzez maite dutelako egin nahi dute. Eta egiaztatu ahal izan badugu Alardea aldaketetarako irekia dagoela, eta horregatik ez dela haren jarraipena arriskuan jarri, -garrantzizko azkenak 1881. urtean-, aldaketa hori onartzeko gai izan behar du, historiako garai honetakoa baita, hauxe da, emakumeek desfilean parte hartzea. Horrek Alardea indartu besterik ez du egingo, herritarren erdiak ez baitira baztertuko, eta gure arbasoen promesari eta botoari eutsi egingo zaio, Foru Milizien Arma Ikuskapena gogora ekartzeaz gainera, baina oraingoan Irungo herri osoarekin.

Ez dago inolako arrazoirik emakumeak horrelako ekitaldietan sartzearen aurrean beldurra izateko, eskarmentuak esaten baitigu emakumea sartu den alorretan errespetu handienaz, erantzukizunez eta zentzuz egin duela beti. Adierazitako guztiagatik, Bidasoaldeko Emakumeak taldeak udalbatza honi eskatzen dio Alardearen ordenantzak aldatzearen aldeko botoa emateko, emakume irundar askok duten Alardean desfilatzeko nahi handiari atek ireki ahal izateko.

Eta Irungo herriarengandik lasaitasuna espero dugu egun horretarako, errespetua, laguntza eta beren herrikideenganako konfiantza, aldaketa horiek giro lasaian egin daitezen, haserrerik gabe, berdintasunean eta tolerantzian oinarrituta, gure herriko jaia eta, azken batean, elkarbizitza irabazten atera dadin. Horixe da gure nahia.

Eskerrik asko. Bidasoaldeko Emakumeak.
Irun, 1996ko apirilak 24

Txaro Arribasek, BAEren izenean, Irungo Udalarri 1996ko apirilaren 24an egin zuen Udalbatzaren Osoko Bilkuraren aurrean irakurri zuen dokumentua. Bidasoaldeko Emakumeak emakume taldeak eginiko Alardean desfilatzeko eskaera ofizialtzat hartzen da.